

1. Balorezko proposamena

Azken urteetan argiaren prezioa igotzen ari da eta familia askok zailtasunak izaten ari dira kostu horiei aurre egiteko. Pertsona hauei panel fotovoltaikoak modu ekonomikoan eskuratzeko aukera emateko fundazio bat sortu dugu eta honek, aldi berean, entitate merkantil bat (GANVI), etekinak lor ditzan gero familiei laguntzako. Horretarako, lehenbizi, diru nahikoa duten familiei salduko dizkiegu eta eskuratutako diruarekin fondo bat sortuko dugu eta bertan dagoen diruarekin ahal den laguntza eskainiko dugu.

Argiaren faktura txikiagotzen laguntzen diguten panel hauek Eguzkitik datorren energia edo erradiazioa erabiltzen dute, automatikoki elektrizitate bihurtzeko. Sistema hau nekazal munduan oso ohikoa da, baina GANVI-ren helburua etxebizitza pribatuetara edo eraikuntza sinpleetara eramatea da. Gure zerbitzua txaletetara, ikastoletara, hainbat pisutako eraikinetara,... zuzenduta dago, baina egoera larrian dauden familiek abantaila batzuk izango lituzkete.

Prezioaren aldetik, moduluko batio (W) bakoitzak euro bateko prezioa du, beraz, 310W-ko plaka batek 310 eurokoa izango da, baina haietatik lortzen den energia etxeko gailuetarako ez denez egokia, bihurgailu bat behar da. Horrek 300 euro balio du, instalakuntza barne.

Plaka hauen mantenimenduaz gu enkargatuko ginateke, baita ere istripuren bat gertatzekotan. Hori gertatzekotan gu joango ginateke arazoa konpontzera prezio ekonomiko batean (gertakizunaren arabera). Behin instalatuta ez da gauza askorik behar eta kontadorea itzalita izanda energia elektrikoa lortuko litzateke etxean.

Gure enpresak beste aukera bat eskaintzen du ere, oso ekonomikoa esperimendu fasean baitago: "Aerogenerador sin palas por vorticidad" delakoa. Instrumentu hau tubo antzeko bat da eta energia eolikoa erabiltzen du. Nahiko aparailu handiak dira baina, lekua izatekotan txikiagoak ere lor genituzke. Honi buruz gehiago jakiteko web orri hau bisitatzera gonbidatzen zaiztuztegu:

<http://www.elalcornoque.org/modules.php?name=News&file=print&sid=218>